

Usurbilgo Udala

2020KO AZAROAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Kontuhartzaitza: Xabier Olano Jauregi.

Ez dira bertaratu: Aroa Etxeburua Ugartemendia, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.


Usurbilen, 2020ko azaroaren 26an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

Gaien azterketarekin hasi aurretik, alkateak adierazi du pleno aretoan ohikoa ez den ikur bat jarri dutela, Saharako bandera. Keinu honen bitartez saharar herriari elkartasuna agertu nahi izan diela azpirmarratu du.

1.- 2020/10/29KO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Batzarkideek, 2020ko urriaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO URRIAREN 13TIK AZAROAREN 13RA (2020/788-2020/884).

Alkatetzak 2020ko urriaren 13tik azaroaren 13ra bitartean (2020/788-2020/884) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2021EKO EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA.

Lur Etxeberriak Ogasuneko diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Aurreko urteko egutegiarekin alderatuta, aldaketa esanguratsurik ez dagoela adierazi du, egin diren aldaketak izan baitira tartean asteburu edo jaieguna tokatzen zelako, baina epeak mantendu egin direla zehaztu du.

Xabier Olano kontuhartzaileak gaineratu du nahiz eta ez izan ordenantza fiskalen mamizko aldaketa bat, badela dio formalki prozedura bat jarraitu behar duen aldaketa, hau da, Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendaurreko epe bat, etab.


Batzarkideek, Ogasun batzordeko irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2021erako ordenantza fiskaletan aldaketa bakarra egutegi fiskalaren daten aldaketa izatea proposatu da azaroaren 17ko Ogasun Batzordean. 2020koak erreferentzia hartuta jaiegunak direnak aldatu dira, epea lanegunean hasi edo bukatzeko.

Aipatu proposamena onartua izan da. Aldeko hiru bozka jaso ditu eta kide bat abstenitu egin da. Aurkako bozkarik ez da jaso.

Beraz, Ogasun batzordeak egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako egutegi fiskala onartu du:

ZERGA KONTZEPTUA	ORDAIN EPEA
- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa – aurreko urteko 4. hiru hilekoa:	Urtarrilaren 4tik 29ra.
- Ura, estolderia eta hondakinak – aurreko urteko 4. hiru hilekoa:	Otsailak 1etik martxoak 15ra.
- Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga:	Martxoak 1etik apirilak 15ra.
- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 1. hiru hilekoa:	Apirilak 5etik 30era.
- Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 1. hiru hilekoa:	Maiatzak 3tik ekainak 15era.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga:	Maiatzak 14tik uztailak 1era.
- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 2. hiru hilekoa:	Uztailak 1etik 30ra.



Usurbilgo Udala

- Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 2. hiruhilekoa:	Abuztuak 2tik irailak 16ra.
- Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa):	Irailak 1etik urriak 1era .
- Ekonomia jarduera gaineko zerga:	Urriak 1etik azaroak 10era.
- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 3. hiruhilekoa:	Urriak 1etik 29era.
- Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 3. hiruhilekoa:	Azaroak 2tik abenduak 16ra.
- Bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa (beladoreak, kutzazain automatikoak...):	Azaroaren 2tik 30era.
- Emakida administratiboak (atxega jauregia, udal baratzak...):	Azaroaren 2tik 30era.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte eta Carlos Pérez Fraisoli.

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.


4.- HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERANKUNDEA ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA, HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIOAREN ARLOARI LOTUA.

Alkateak azaldu du hitzarmen honetan arautzen dela IVAP eta Usurbilgo Udalaren arteko harremana nolakoa izango den, batez ere, Udaleko langileentzako bideratzen den hizkuntza prestakuntzarako zerbitzua nolakoa izango den eta, era berean, euskara ikastaro horietan parte hartzen duten langileak ordezkatzeko dirulaguntzak nola arautzen diren.

Josune Urkolak galdetu du ea hau hitzarmena berritzea den edo lehenengo hitzarmena den.

Alkateak zehaztu du berritzea baino gehiago arautzea dela, modu honetan bi administrazioen arteko harremana arautu egiten da.

Idazkariak argitu du lehenago sinatuta zegoela eta oraingo honekin hitzarmena berri egiten dela.



Usurbilgo Udala

Alkateak aipatu du hitzarmenaren 10. klausulan esaten dela hitzarmen honek aurrekoak ordezkatzan dituela eta 11. klausulan, berriz, hitzarmen honek 4 urteko iraupena izango duela, aldeetako batek ez badu adierazten berariaz bertan behera utzi nahi duela.

Batzarkideek, Kultura, euskara eta gazteria batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“KE.02/2020
Esp.zk. 0165

I.– 10/1982 Legeak (Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legeak) aitortzen du herritar orok eskubidea duela euskara nahiz gaztelania erabiltzeko herri-administrazioarekiko harremanetan, eta, ondorioz, administrazioari agintzen dio eskubide hori gauza dezan.

II.– 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak), hizkuntza-normalizazioari buruzko tituluan, 10/1982 Legean ezarritako printzipio eta tresnak biltzen ditu. Legeak, halaber, hizkuntza-eskakizunaren figura sortzen du; horrela, aurrerantzean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako lanpostuak betetzeko prozesuetan eta, oro har, hautaketa-prozesuetan, irizpide objektiboak izango dira euskara-maila baloratzeko.

III.– Urriaren 14ko 241/2003 Dekretuak (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituenak) 15.1 artikuluan ezartzen duenez, erakunde horri dagokio, Euskalduntze Zerbitzuaren bitartez, "Euskadiko administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen hizkuntza-gaitasuna sustatu, antolatu eta ebaluatzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean eta horren garapeneko arauetan ezarritako moduan, hartara euskal administrazio publikoetan, beroriekin lankidetzan arituz, euskararen erabilera normalizatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntzaren normalizaziorako ezarritako planekin bat etorritik."

IV.– Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak) testu bakar batean biltzen ditu euskararen administrazio-erabilerari buruzko hainbat xedapen, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza-prozesuaren antolamenduari buruz Eusko Jaurlaritzak zenbait dekretutan emandako xedapenak.

V.– Usurbilgo udalak onartuta dauka hizkuntza-normalizaziorako plana, beti ere apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen du).

VI.– Hori guztia ikusita, Usurbilgo udalak Herri Arduralaritzaren Euskal erakundearen lankidetzan eskatzen du indarrean dauden xedapenen arabera bete behar dituen hizkuntza-helburuak lortzeko.

Horregatik guztiagatik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Usurbilgo udalak erabaki dute lankidetzan aritzea azken erakunde horren hizkuntza-normalizazioko lanetan. Horretarako, hitzarmen hau adostu dute, ondoko printzipioak eta jarduteko ildoak abiapuntu dituela.



Usurbilgo Udala

HITZARMENAREN HELBURUA

Lehenengoa.– Hitzarmen honen bidez finkatu nahi da zein nolako harreman juridikoa izango duten Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Usurbilgo udalak beren artean, Ogasun eta Herri administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduan ezarritakoetatik aplikagarriak direnei dagokionez. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da Herri arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak.

Bigarrena.– Aurreko klausula horrek aipatzen duen harreman juridikoak honako jardute-esparruak izango ditu:

- Euskara-ikastaroak antolatzea: euskalduntze/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza-eskakizunari dagokion hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak.
- Dirulaguntzak: euskara-ikastaroetara doazen langileak ordezkatzeko (udal-administrazioentzako baino ez).
- Terminologia juridiko-administratiboa.
- Euskarazko administrazio-materiala prestatu eta erabiltzea.

Hori horrela, azaroaren 16an egindako Soziokultura Batzordean Luken Arkarazo, Oskar Santamaria, eta Patxi Suárez-en aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udal-batzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea eta Usurbilgo Udalaren arteko hitzarmena sinatzea.

Bigarrena: akordioaren berri emango zaio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eta Usurbilgo Udaleko Pertsonal Sailari.”


Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- ERAKUNDE ADIERAZPENA: AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA.

Itziar Basterrikak adierazpena irakurri du.



Usurbilgo Udala

Alkateak, azaroaren 25a dela-eta, Parekidetasun sailetik antolatu den hitzaldiaren berri eman du. Mahai inguru, solasaldi eta hitzaldi oso interesgarria izango dela uste du, indarkeria matxistak Covid-19ren testu inguru honetan. Bertan izango diren hizlariak gai honetan adituak diren bi emakume izango direla gaineratu du. Hitzaldia abenduaren 17an izango dela eta parte hartzeko gonbita luzatu die batzarkideei.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordean bozkatua izan zen adierazpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“COVID-19ren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarriz. Mundua ulertzeko eta bertan egoteko dugun modua aldatzen ari da. Konfinamenduak, mugimendumurrizketek eta harreman-mugek agerian utzi dituzte, beren gordintasun osoz, indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak.


Krisi-testuinguru guztiak, pandemia honekin gertatzen den bezala, indarkeria matxista, ugaltzeko, biderkatzeko eta ugaritzeko haztegi bat dira. Indarkeria hori botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da, eta pairatzen ari garen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioz larriagotu egiten dira.

Pandemiak sortutako egoeran, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteagatik indarkeriari aurre egiten ari diren emakume eta neskeengan. Gizartearen aitortpen eta elkartasun osoa merezi dute. Testuinguru horretan, isolamendua, babesgabetasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko lanean jarraitu behar dugu. Horregatik, aurten Euskal Herriari hildako lau emakumeak gogoratu nahi ditugu bereziki gaur, bi EAEn eta beste bi Iparraldean. Errealitate mingarri horrek gizarte gisa interpelatu egiten gaitu, lanean jarraitzeko eta mobilizatzeko konpromisoa hartzeko, horrela gerta ez dadin.

Hala ere, horrekin EZ DA NAHIKOA. Konpromiso politiko argia behar dugu, gizarteak erakundeei eskatzen baitie emakumeen aurkako indarkeria matxista lehenetsun politiko bihurtu dezatela. Inoiz ez bezala zerbitzu publikoen eta erakundeen laguntza eta baliabide guztiak izateko, emakumeei beren askapen-, berreskuratzeko-, ahalduzko- eta autonomia-prozesuetan laguntzeko garaia da. Ezinbestekoa da emakumeek duintasunez eta segurtasunez bizitzea merezi duen bizitzarako oinarritzeko eskubidea berreskuratu dezaten. Behar-beharrezko baldintza da, gainera, gure herriak eta hiriak bizikidetzara seguru, solidario eta berdinzalerako gune gisa indartu daitezen.

Herritarrengandik hurbil gaudenez, euskal udalok ahotsa jarri nahi diogu gure udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuekiko duten elkartasunari. Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakunde, kolektibo feminista eta emakumeen kolektibo, aditu eta gizarteko eragile guztiekin lankidetzan eta koordinatuta. Horregatik guztiagatik, Usurbilgo Udalak konpromiso hau hartzen du:

- **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak** arreta-prozesu osoaren **erdigunean** jartzea, haien beharrak eta eskaerak entzun eta aintzat hartuta, babeserako, arretarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermerako eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzea.



Usurbilgo Udala

- Behaketa **hobetzea**, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko eta horien aurrean azkar jarduteko.
- Indarkeria matxistaren edozein formari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta-eta laguntza-zerbitzuak mantentzea, hobetzea eta **egokitzea**, ikuspegi konpontzailearekin, erakunde bakoitzaren eskumenen esparruan.
- Emakumeen ahalduntzeari eta Gazteen artean indarkeriaren prebentzioari laguntzeko programak **bultzatzea**, etorkizuneko indarkeria-egoerak eragozteko funtsezko tresnak diren aldetik.
- Tokiko bizitzan berdintasun-programak **zaintzea eta egonkortzea**, emakume-kolektibo batzuen egoera ahulak areagotzeko desberdintasunak areagotzearen aurka borrokatzeko.
- **COVID19ren krisiak** emakumeen pobretzean eta kalteberatasunean duen **eragina aztertzea**, laguntza-jarduera espezifikoak diseinatu ahal izateko.
- **Genero-ikuspegia txertatzea** enplegu-galerak, diru-sarrerak eta krisiaren beste eragin negatibo batzuk **arintzeko neurrietan**, zeinak eragin handiagoa izan duten emakumeengan, eta oztopo diren **indarkeria matxistako egoeretatik ateratzeko**.
- Erakundeen, udalen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko **lankidetzak eta koordinazioak** eskatzea, baliabideak bermatzeko eta beharrezko ekimen guztiak abian jartzeko, beren eskumenen esparruan.

Halaber, gure bizilagunei dei egiten diegu mugimendu feministak Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko eguna dela-eta deitutako mobilizazioei atxikitzeko.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- MOZIOA: 1978 ETA 1999 BITARTEAN MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIAREN TESTUINGURUAN GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK JASAN DITUZTEN BIKTIMEI 5/2019 LEGEAK ESKAINIKO DIEN ERREPARAZIOA (EGIARI ZOR FUNDAZIOA).

Beñat Larrañagak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordean bozkatua izan zen mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“MOZIOA



Usurbilgo Udala

Zioen azalpena

Egiari Zor Fundazioa 2012. urteaz geroztik ari da lanean Estatuak eragindako edo sustatutako indarkeriak jasan dituzten biktimen eskubideen alde. Fundazioa osatzen dute erailak izan ziren pertsonen senitartekoen, eta zaurituak edo torturatutak izan ziren pertsonen.

2019ko irailaren 27an epea zabaldu zen giza eskubideen urraketen biktimak apirilaren 4ko 5/2019 Legearen babespean aitortzeko eskaerak aurkezteko. Lege horrek aldatu egin zuen uztailaren 28ko 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1979 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasandako biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Legearen helburua honakoa da: funtzionario publikoek beren eginkizunetan edo beren eginkizunetatik kanpo eragindako giza eskubideen urraketen biktimak aitortzea; taldean edo modu isolatuan, indibidualki eta kontrolik gabe jarduten zuten partikularrek eragindako eskubide urraketak aitortzea; eta, urraketa horien ondorioz, pertsonen bizitzan edo osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexualean izandako eraginak aitortzea.

Laburki esanda, Legearen bidez aitortza jaso dezakete 1979tik 1999ra bitartean estamentu ofizialek praktikara eramandako edo sustatutako biolentziek EAEn eraildako, torturatutako edo larriki zauritutako pertsonen (edo urraketaren unean EAEn bizi zirenek).

Ehunda dira, milaka ziurrenik, denbora tarte horretan Estatuak praktikara eramandako giza eskubideen urraketak jasan zituzten pertsonak, eta aipatu legearen babespean aitortuak izateko egin beharreko kudeaketa ez da erraza.

Biktima izaera aitortzeko eskaera egiten duten pertsonen eskabidea aurkeztu behar dute. Hori euskadi.eus atarian elektronikoki bete dezakete, edo, bestela, eskabide-eredu normalizatua egoitza elektronikoko horretan bertan deskargatu eta Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzuko edozein bulegotan aurkeztu.

Eskaera horretan, giza eskubideen urraketa gertatu zen testuinguruaren deskribapena jaso behar da, eta biktima-izaera frogatzeko garrantzitsutzat jotzen diren txosten, ziurtagiri eta dokumentuak erantsi behar zaizkio. Hala ere, dokumentaziorik ez badago, inolako arazorik gabe egin daiteke eskaera.

Egia Zor Fundazioa prest dago behar duen orori izapideak egiten laguntzeko. Horretarako, nahikoa da harremanetan jartzea info@egiarizor.eus helbide elektronikora idatziz edo 944 045 363 telefonora deituz.

Berebiziko garrantzia du Euskal Herriko indarkeria testuinguruan gertatu diren giza eskubideen urraketa guztiak erabat aitortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeak. Estatuak eragindako tragediaren inguruko egia osoa aitortzea, ezagutzea eta ezagutzera ematea ere ezinbestekoa da, bermatzeko giza eskubideen urraketan biktima bat bera ere ez dela geratuko dagokion babesik eta aitortzarik gabe.



Usurbilgo Udala

Horregatik guztiagatik, Egiari Zor Fundazioak honako mozio hau onartzeko eskatzen dio Usurbilgo Osoko Bilkurari:

1. Usurbilgo Udalak aitortza adierazten die Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan zituzten biktimei, eta egokitzat jotzen du 5/2019 Legeak eskainiko dien erreparazioa, biktima horiek duten egia, justizia eta memoriarako eskubideak egikaritzeko urrats garrantzitsua izanik.
2. Era berean, Usurbilgo Udalak animatzen ditu giza eskubideen urraketan biktima gisara errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eskaera aurkezteko borondatea duten udalerriko pertsonak prozedura hori martxan jartzeko eskubidea aurkeztera. Horrez gain, hori posible izan dadin, pertsona horiei aholkularitza eta laguntza emateko konpromisoa ere hartzen du Udalak.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- ERAKUNDE ADIERAZPENA: ABENDUAK 3, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek gaia tratatzea berretsi dute aho batez.

Oskar Santamariak mozioa irakurri du.

Jarraian, adierazpena aztertu ondoren, aho batez onartu dute, honela dio:

“2020KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA Euskara, aurrerabide Gizartea euskaraz biziberritzea helburu

Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Kupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaurgarriak gara; zaurituta gaude.

Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik. Euskararen hitzun elkarrekin ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Zentzu horretan, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.



Usurbilgo Udala

Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.

Horixe da euskaldunok –neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen munduko herritarrok, alegia– euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.

Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu duena ere: gizarte prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena. Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.

Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun elkartea osatzen dugula, eta Euskaraldian norberaren erabakimenetik abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada.

Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.


Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharriari euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.

Euskaraldiak eskaintzen digu aurten berriz ere zailtasunak aukera bilakatzeko abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebesean dator, ez bairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.

Aurtengoan, balio berezi batez apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasunezko keinu praktiko oro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundearen erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.

Esanahi berezi batez jantziko da aurten, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen ezinbestekotasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.

Izan ere, bagenekien euskaraz zetorrela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna, eta aurten beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu



Usurbilgo Udala

euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun honetan, erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.

Euskaraz biziberritu behar dugulako geure gizartea.
Euskararen ahotsa zor diogulako munduari.
Euskaraz garelako munduko herritar.
Euskara aurrerabidea delako.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- ERAKUNDE ADIERAZPENA: MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERA.

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek gaia tratatzea berretsi dute aho batez.

Mozioa aurkeztu duten TADAMUN elkartekoek mozioa irakurri dute.

Patxi Suarezek bere botoaren zentzua azaltzeko testu bat irakurri du: “Mozioari babesa ematea errezena litzateke, planteatuta dagoen bezala; batez ere, mozio honek jarrera politikoa markatu eta Mendebaldeko Saharako herriarekin solidaritatea erakutsi nahi duela kontutan hartuz.


Badakigu Marokok erreferendumerako akordioak beti urratu dituela, erreferendumeko erroldarekin, Marokoko jendez birpopulaketarekin, edo harresiarekin, besteak beste.

Baina, gobernuaren alderdi bezala, ezin dugu testu honetan agertzen den terminologia partekatu, eta aintzat hartu behar dugu nahitaez Marokorekin kontaktu behar dugula gure arrantzaleen interesak babesteko, Kanariasera egunotan iristen diren pertsonen baliabideak emateko, edo terrorismo fundamentalistaren kontrako Politikarako.

Hala ere, azpimarratu nahi dut Mendebaldeko Sahararrei, batez ere, baliabidea eta babesa eman nahi diegula; ahalik eta egoera egonkorrena nahi dugu, ahalik eta armetatik urrunen, eta hau lortzeko nazioarteko komunitatearekin batera, besterik ez, joan behar dugu.

Amaitzeko, esan nahiko nuke nik ere pentsatzen dudala bai Europak bai Espainiak gehiago egin ahal dutela, nahiz eta irtenbidea oso oreka hauskor batean datzan.

Hori guztia dela eta, mozioaren arimarekin bat etorri arren, eta denok Sahararentzat hoberena nahi dugula ziur egonda, abstenituko naiz.”



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi dio Patxiri penaz hartu duela bere abstentzioa. Ziur dago eta hala esan du Patxik, mozio honen espirituarekin bat egiten duela, ulertzen du Espainiako Gobernuan dagoen alderdiko kide dela, baina Espainiako Gobernuak paper inportante bat du Saharako konfliktoan eta bere ardurak eta erantzukizunak hartu behar dituela uste du, eta ez beste aldera begiratu edota pasibidadez jokatu. Era berean, Espainiako Gobernuak Marokoren aurrean jarrera tinkoago bat eduki beharko lukeela uste du.

Jarraian, adierazpena aztertu ondoren, gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatek nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrek bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrak erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.

Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legitimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-etena konpromisoa.

Gertakari horien aurrean Usurbilgo Udalak, Sahara Euskadi Mugimenduarekin eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:

- Berresten dugu zalantzarik gabeko elkartasuna diogula saharar herriaren eta haren legezko ordezkaritza Fronte Polisarioaren borrokari.
- Marokoko Erresumari egozten diogu 1991n Su-Etena apurtu izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzukizuna.
- Minursori eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza berma dezatela eskatzen diogu; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa susta dezatela.
- Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala eskatzen diogu; izan ere, Lurralde ez-autonoma da, Marokok legez kanpo okupatua, NBEren agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.
- Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara “de iure” administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala exijitzen diogu; eta horren arabera joka



Usurbilgo Udala

dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktiboa izanik.

- Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen ditugu euskal herritarrok.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte eta Carlos Pérez Fraisoli.

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

9.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez dago galdera edo eskaerarik.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:45etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.